



FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOAK EGIN BEHARREKO OBRA, ZERBITZU, HORNIDURA ETA BESTE KONTRATU BATZUK, HARMONIZATU GABEAK, ESLEITZEA ARAUTZEN DUTEN JARRAIBIDEAK

I. SARRERA

FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA euskal sektore publikoko fundazioa da. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.1.d) eta 3.3 artikuluko baldintzekin bat, sektore publikokoa da eta, hain zuzen ere, botere esleitzaila da, Administrazio Publikoa izateko nortasun juridikoa ez duen arren.

Horrela, SPKLTBren 191 artikulua xedatzen du Administrazio Publiko ez diren botere esleitzailen organo eskudunek nahitaez bete beharreko jarraibideak onartuko dituztela beren etxe barrurako, eta, jarraibide horietan, kontratazio-prozedurak arautuko dira, betiere harmonizatu gabeak badira.

Aurrekoa betez, honako Kontratatze Barne Jarraibide hauek ezarri dira, eta Jarraibide horiek araututako kontratuak esleitzeko prozeduretan parte hartu nahi duen edozein pertsona interesatuk ditu eskuragarri. **FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA** izango dira (www.basqueteam.eus)

II. JARRAIBIDEEN XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Lanak, zerbitzuak, hornidurak eta beste batzuk kontratatze prozedurei aplikatuko zaizkie jarraibide hauek, betiere harmonizatu gabeko kontratutak badira, SPKLTBk ezarritako mugen arabera.

Jarraibide hauetan ageri diren zenbateko guztiak BEZ kanpo dira.

Horrela, hauexek dira harmonizatu gabeko kontratuak:

- Obra-kontratuak, balio zenbatetsia 5.225.000 eurotik beherakoa bada.
- Hornidura-kontratuak, balio zenbatetsia 209.000 eurotik beherakoa bada¹.
- Zerbitzu-kontratuak, SPKLTBren II. Eranskinen 1.-16. bitarteko kategorietakoak badira, eta balio zenbatetsia 209.000 eurotik beherakoa bada¹.
- Zerbitzu-kontratuak, SPKLTBren II. Eranskinen 17.-27. bitarteko kategorietakoak badira, eta 13.2 artikuluko kontratuak, zenbatekoa edozein dela ere.

Edozein modutan, kanpo daude, zenbatekoa edozein dela ere, SPKLTBri lotuta ez dauden kontratuak eta ordenamendu juridiko pribatuari edo, hala badagokio,



aplikatu ahal zaizkion arau bereziei lotuta daudenak, betiere SPKLTBren 4. artikuluekin bat.

Halaber, kanpo daude harmonizatuta dauden kontratuak, SPKLTBren 13.1 artikulua araututa daudenak, eta 13.2 artikuluan jasota dauden salbuespenak aintzat hartuta.

Publizitate-, lehia-, gardentasun-, konfidentzialtasun-, berdintasun- eta bereizkeriak gabeko printzipioen eraginkortasuna bermatzea da jarraibideen xedea, baita **FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA**rentzat onuragarriena den eskaintza ekonomikoari esleitzea ere.

III. KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratatzeko gaitasuna **FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA**ren Estatutuek eta aplikagarri zaizkion zuzenbide pribatuaren arauak arautzen dute.

FUNDACION EUSKADI KIROLA FUNDAZIOAren kontratazio-organoek, xedapen estatutario baten edo ahalorde-eskitura baten indarrez, erakunde horren izenean kontratuak egiteko eskumena dute, eta berariazko aipamenik egon ezik, Patronatuak izango du eskumen hori.

Aurrekoari kalterik egin gabe, **FUNDACION EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA**k Kontratazio-Mahaia osatu ahal izango du, kontratuaren zailtasun teknikoek edo ezaugarri bereziek hala behartuta. Kontratazio-mahaia honako zeregin hauek izango ditu: aurkeztutako agiriak sailkatu, eskaintzak balioetsi eta kontratazio-organoari esleipen-proposamena egin. Mahaia osatuko dutenak dagokion baldintza-pleguan zehaztuko dira.

Organo-kontratazioaren eskumenak honako hauek dira: kontratua interpretatu, kontratua betetzeak dakartzan zalantzak argitu, kontratua aldatu, suntsiarazi eta esleipen-prozedura esleitu gabe utzi, baita indarrean dagoen legeriarekin bat egiten diren prerrogatibak ere, baldin eta interes publikoaren kontra, antolamendu juridikoaren kontra eta administrazio onaren printzipioen kontra ez badaude, SKPLren 25. artikulua xedatu bezala.

Kontratazio-organoak, SPKLren 41. artikuluekin bat, kontratuaren erantzulea izendatu ahal izango du. Erantzule horrek kontratua gauzatzen dela ikuskatuko du eta beharrezko diren erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu, adostutako prestazioa behar bezala egingo dela bermatze aldera.

IV. KONTRATUA PRESTATZEA

a) **50.000 eurotik beherako kontratuak, obra-kontratuak badira, edo 18.000 eurokoak, zerbitzu-, hornidura-kontratuak edo bestelakoak badira.**



Horrelakoetan, aldez aurreko aurrekontua eskatuko da, Kontratazio-Organoak onartu beharko duena. Dagokion faktura aurkeztearekin batera egingo da ordainketa, aldez aurretik fundazioak onartuta.

b) Zerbitzu-, hornidura-kontratuak eta bestelakoak, 18.000 eurokoak edo hortik gorakoak eta 50.000 eurokoak edo hortik beherakoak badira.

Horrelakoetan, agiri bat idatzi beharko da, eskaintzarako betekizunak eta baldintzak jasotzen dituen. Agiri horrek, gutxienez, honako kontratistarentzako infomazio hau jasoko du:

- Kontratuaren xedearen deskribapena, oinarritzko ezaugarriak dituela.
- Lizitazio-aurrekontua.
- Kontratuaren iraupena eta luzapenak.
- Lizitatuzaileak aurkeztu beharreko agiriak eta eskaintzak aurkezteko era.
- Ondasuna edo zerbitzua aurkezteko edo betearazteko tokia eta epea.
- Zerbitzua edo hornidura zuzen betearazteko edo eskuratu beharreko ondasunaren ezaugarriak direla-eta, beharrezkoa den beste edozein baldintza.

Sartuta daude aurrekoetan aipatu ez diren beste baldintza eta betekizun batzuk, betiere Jarraibide hauen II. atalean ezarritako printzipioak betez gero.

c) Harmonizatu gabeko kontratuak, 50.000 eurotik gorako balio zenbatetsikoak badira.

SPKLTBren 137.2 artikuluekin bat, 50.000 eurotik gorako kontratuen kasuan, Baldintza Plegua egin beharko da, gutxienez, honako informazio hau jasota duela:

- Kontratuaren xedearen deskribapena, oinarritzko ezaugarriak dituela.
- Lizitatuzailearen gaitasun-betekizunak, kontratatzeke debekurik ez duela, eskatu beharreko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala, hala badagokio.
- Lizitazio-aurrekontua.
- Kontratuaren iraupena eta luzapenak.
- Kontratua esleitzeko era.
- Eskaintzak aurkezteko epea, edonola ere, lehia-, berdintasun- eta bereizkeriarik gabeko printzipioak bermatzeko bestekoa izango dena.
- Publizitatea, kontratugilearen profileraren sartzeko modua eta publizitate-gastuak, hala badagokio.
- Lizitatuzaileak aurkeztu beharreko agiriak eta eskaintzak aurkezteko era.



- Aldaerak onartzeko araubidea.
- Eskaintzak aurkeztera gonbidatuta dauden lizitatzailleak hautatzeko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, negoziazioaz arituko diren alderdiak.
- Kontratua esleitzeko aintzat hartuko diren irizpide objektiboak, hala badagokio.
- Prestazioa betearazten dela arautzen duten baldintza tekniko bereziak eta, hala badagokio, ezaugarriak definitzen dituztenak.
- Obra, ondasuna edo zerbitzua aurkeztu edo betearazteko tokia eta epea.
- Eskaintza ekonomikorik onuragarriena aurkezten duen lizitatzailleak eratu beharreko bermeak, hala badagokio.
- Ordaintzeko era eta faktura aurkezteko beharra.
- Obra-kontratuetan subrogatzeko baldintzak, esleipendunari behar hori ezarriz gero.
- Beste baldintzak batzuk, hala nola: ingurumen eta/edo gizarteari buruzkoak; obra, zerbitzu edo hornidura mota dela-eta, eskatu beharreko gaikuntzak edo ziurtapenak.
- Zerbitzua edo hornidura zuzen betearazteko edo eskuratu beharreko ondasunaren ezaugarriak direla-eta, beharrezkoa den beste edozein baldintza.
- Kontratuaren araubide juridikoa eta jurisdikzio eskuduna.

Sartuta daude aurrekoetan aipatu ez diren beste baldintza eta betekizun batzuk, betiere Jarraibide hauen II. atalean ezarritako printzipioak betez gero.

Era gehigarrian, obra-kontratua esleitzeko, zenbatekoa edozein dela ere, dagokion proiektua prestatu, berrikusi, onartu eta zuinkatu beharko da alde zurretik. Proiektu horrek zehazki definituko du kontratuaren xedea, salbu eta proiektua eta obra batera esleitzeko bada; horrelakoetan, obra betearazteko Kontratazio-Organoak berrikusi, onartu eta zuinkatu beharko du proiektua.

Esleipen-prozedura edozein dela ere, kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa bada, lizitazioari buruzko informazioa sartu beharko da **FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA**ren kontratugilearen profilean, alde batera utzi gabe kontratatzeke barne jarraibide hauek hedatzeko bitarteko gehigarriak aurreikusten dituztela esleitzeko prozedura jakin batzuetarako.

V. ESLEITZEA

Harmonizatu gabeko kontratuak esleitzea atal honetan jasotako arauak arautuko dute, kontratua bakoitzaren zenbatekoa zein den.

Ondore horietarako, kontratuen balio zenbatetsia SPKLTBren 88. artikuluan jasotako arauekin bat kalkulatu da.



a) 50.000 eurotik beherako kontratuak, obra-kontratuak badira, edo 18.000 eurokoak, zerbitzu-, hornidura-kontratuak eta bestelakoak badira: esleipen zuzen posiblea

Horrelakoetan, asebate nahi den beharra zein den, zuzenean hautatuko da enpresa kontratista egokiena, dagokion arloan edo sektorean zerbitzuak ematen edo ondasunak hornitzen dituzten enpresetatik eta prestazioa egiteko beharrezkoa den jarduteko gaitasuna eta gaikuntza profesionala duten enpresetatik. Kontratuaren iraupena ezingo da urtebetetik gorakoa izan, ezta luzapena izan ere.

Dena dela, prozedura negoziatua, irekia edo murriztua aukera daiteke. Horrelakoetan, hurrengo ataletan ezarritakoa aplikatuko da.

b) Obra-kontratuak, 50.000 eurokoak edo hortik gorakoak eta 200.000 eurokoak edo hortik beherakoak eta zerbitzu-, hornidura- eta bestelako kontratuak, 18.000 eurokoak edo hortik gorakoak eta 60.000 eurokoak edo hortik beherakoak: publizitaterik gabeko prozedura negoziatu posiblea.

Horrelakoetan, kontratuaren xedea egiteko gaitasuna duten hiru enpresari, gutxienez, eskatuko zaizkio eskaintzak, eta eskaintza egiteko betekizun nahiz baldintzak edo Baldintzen Plegua bidaliko zaizkie.

Edonola ere, agiri edo Baldintzen Plegu horretan zehaztuko dira enprekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta/edo teknikoak, baita, hala badagokio, esleitzeko eta haztatzeko irizpideak ere.

Fundazioko teknikariek proposamena egingo dute, eta bertan jasota egongo da aurkeztutako proposameneren zerrenda, hurrenkera beherakorrean sailkatuta. Proposamen horiek ez dira neurrigabeak edo ez ohikoak, eta negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta/edo teknikoak edo, hala badagokio, esleitzeko eta haztatzeko irizpideei lotuta daude. Eskaintza ekonomikorik onuragarriena zein den ere jasoko da proposamenean, betiere era arrazoituan.

Jasota egongo dira egin diren gonbidapen guztiak, jasotako eskaintzak, horiek onartzeko edo ukatzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak.

Esleipena parta hartzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratugilearen profileen argitaratuko da. Kontratuaren formalizatzea kontratugilearen profileen argitaratuko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 100.000 euroko edo hortiko gorako obra-kontratuak.

Dena dela, prozedura negoziatuaren aukera har daiteke, publizitatearekin, irekia edo murriztua. Horrelakoetan, hurrengo ataletan xedatutakoa aplikatuko da.

c) 200.000 eurotik gorako eta 1.000.000 eurotik gorako obra-kontratuak eta 60.000 eurotik gorako eta 100.000 eurotik beherako zerbitzu-, hornidura-



kontratuak eta bestelakoak: prozedura negoziatu posiblea publikitatearekin.

Horrelakoetan, fundazioaren kontratugilearen profilean argitaratuko da lizitazio-iragarkia. Bertara sartzeko honako helbide honen bidez egingo da www.basqueteam.eus. Halaber, Baldintzen Plegua argitaratuko da, Kontratazio-Organoak hala erabakita, baita fundazioak egoki deritzon beste publikitaterako baliabide gehigarri batzuk ere.

Edonola ere, Baldintzen Pleguan zehaztuko dira enpresekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta/edo teknikoak, baita, hala badagokio, esleitzeko eta haztatzeko irizpideak ere, eta eskaintza ekonomikorik onuragarriena hautatuko da.

Fundazioko teknikariek proposamena egingo dute, eta bertan jasota egongo da aurkeztutako proposamenen zerrenda, hurrenkera beherakorrean sailkatuta. Proposamen horiek ez dira neurrigabeak edo ez ohikoak, eta negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta/edo teknikoak edo, hala badagokio, esleitzeko eta haztatzeko irizpideei lotuta daude. Eskaintza ekonomikorik onuragarriena zein den ere jasoko da proposamenean, betiere era arrazoituan.

Jasota egongo dira, hala badagokio, egin diren gonbidapen guztiak, jasotako eskaintzak, horiek onartzeko edo ukatzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak.

Esleipena parta hartzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratugilearen profilean argitaratuko da. Kontratuaren formalizatzea kontratugilearen profilean argitaratuko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian obra-kontratuak.

Prozedura negoziatua ere aukera daiteke, zenbatekoa edozein dela ere, honako artikulua hauetan aurreikusitako kontratuetan: 170., 171., a), b) eta c) atalak, 173., a), b), c), d) eta e) atalak eta 174., a), b), c) eta d) atalak. Horrelakoetan, bakar-bakarrik argitaratuko da lizitazio-iragarkia kontratugilearen profilean honakoetan: 170. artikulua, a) eta b) atalak, 171., a) atala, eta 174., a) atala.

Aurreko guztia gorabehera, prozedura irekia edo murriztua ere aukera daiteke, eta horrelakoetan hurrengo ataletan xedatutakoa aplikatuko da, publikitateari buruz ezarritakoa salbuetsita. Kasu horretan publikitate-printzipioa beteta dagoela ulertuko da, lizitazio-iragarkia, kontratuaren esleipena eta formalizazioa kontratugilearen profilean argitaratuta. Halaber, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da obra-kontratuen formalizatzea.

d) 1.000.000 eurotik gorako eta 5.225.000 eurotik beherako obra-kontratuak eta 100.000 euroko edo hortik gorako eta 209.000 eurotik beherako zerbitzu-, hornidura-kontratuak eta bestelakoak: prozedura irekia edo murriztua



Horrelakoetan, lizitazio-iragarkia kontratugilearen profilean eta egoki deritzon eta Pleguan zehazten den aldizkari ofizialean argitaratuko da, kontratu bakoitzaren izaera eta inguruabarrak eta prozedurari eman nahi zaion lurralde-hedapena kontuan hartuta.

Proposamenak aurkezteko epea Baldintzen Pleguan zehaztuko da, baina ezin da inola ere 26 egun baino gutxiagokoa izan, obrak badira, edo 15 egunekoa, hornidurak, zerbitzuak edo bestelakoak badira, salbu eta, Kontratazio-Organoren iritziz, epea murrizteko egoera berezirik izaten bada.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta gutunazal itxietan aurkeztuko dira, Baldintzen Pleguan adierazitako eran.

Kontratua esleitzeko eta haztatzeko oinarri diren irizpideak Kontratazio-Organok zehaztuko ditu eta iragarkian eta Baldintzen Pleguan adieraziko dira.

Baldintzen Pleguan jasota egongo dira Batzorde baten osaketa eta eskumenak. Aurkeztutako proposamenen ebaluazio-txosten objektiboa egingo du batzorde horrek eta Kontratazio-Organori helaraziko dio proposamena. Bertan jasoko da aurkeztutako proposamenen zerrenda, hurrenkera beherakorrean sailkatuta. Proposamen horiek ez dira neurrigabeak edo ez ohikoak, Baldintzen Pleguan ezarritako balorazio-irizpideei jarraituta. Eskaintza ekonomikorik onuragarriena zein den ere jasoko da proposamenean. Besterik ezean, fundazioko teknikariek egingo dute proposamen hori.

Kontratazio-Organok, ebazpen ziodun bidez, eskaintza ekonomikorik onuragarrienari esleituko dio kontratua, Baldintzen Pleguan ezarritako proposamenak baloratzeko irizpide objektiboekin bat eta Ebaluazio Batzordeak edo, besterik ezean, teknikariek egindako proposamena kontuan hartuta. Kontratazio-Organok kontratua esleitzen ez badu egindako proposamenarekin bat, erabakia arrazoitu beharko du.

Esleipena kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizatzea, gutxienez, kontratugilearen profilean eta egoki deritzon eta Pleguan zehazten den aldizkari ofizialean argitaratuko da, kontratu bakoitzaren izaera eta inguruabarrak eta prozedurari eman nahi zaion lurralde-hedapena kontuan hartuta.

e) Erregulazio osagarria

Pleguan edo Jarraibide hauetan beren-beregi adierazi ezean, honakoa aplikatuko da:

- prozedura irekirako eta prozedura murrizturako, 151. artikuluan (1., 2. eta 3. atalak).



- prozedura irekirako, 157., 158., 159. (kasu bat ere aplikatzekoa ez bada, adituen batzordearen edo organismo tekniko espezializatuaren esku-hartzeari dagokionez ezarritakoa) eta 161. artikuluetan; prozedura murrizturako, 162., 163., 165., 166., 167., 168. artikuluetan, eta aplikatu daitezkeen gainerako artikuluetan. Kasu bietan, Administrazio Publiko ez den heinean, dagozkien egokitzapenekin.

VI. KONTRATUAK

a) Kontratuen izaera juridikoa

Fundazioak egiten dituen kontratuak pribatuak dira, eta, kontratu pribatuen prestatzea eta esleitzea, berariazko legerik ezean (Jarraibide hauek, kasu), SPKLTBren eta lege hau garatzeko xedapenen pean egongo dira, eta, horien ordezkio modura, administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, edo, hala balegokio, zuzenbide pribatuko arauak –subjektu edo erakunde kontratatzailearen arabera zer dagokion–.(SPKLTBren 20. artikulua).

b) Ondorioak eta azkentzea

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, kontratu hauek zuzenbide pribatuaren pean egongo dira (SPKLTBren 20. artikulua).

c) Arbitrajea

Fundazioak egiten dituen kontratuen eraginari, betetzeari eta azkentzeari buruz sor daitezkeen ezadostasunak konpontzeko, arbitrajera jo daiteke, Arbitrajeari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen xedapenen arabera. (SPKLTBren 50. artikulua).

d) Jurisdikzio eskuduna

Jurisdikzio zibila izango da eskuduna fundazioak egiten dituen harmonizatu gabeko kontratuak prestatzeari, esleitzeari, ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko (SPKLTBren 21. artikulua).

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna SPKLTBren II. Eranskinen 17-27 bitarteko kategorietako zerbitzu-kontratuak prestatzeari eta esleitzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko, betiere balio zenbatetsia 209.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada.



e) Kontratuaren edukia

Fundazioek egiten dituen harmonizatu gabeko kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan edo baldintza eta betekizunen agirian azaltzen ez badira:

- Alderdien identifikazioa.
- Alderdiek kontratua izenpetzeko duten gaitasunaren egiaztatpena.
- Kontratuaren xedearen definizioa.
- Kontratuari aplikatzekoa zaion legediaren aipamena egitea.
- Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda zenbakitua.
- Prezio zehatza, edo zehazteko modua.
- Kontratuaren iraupena edo kontratua gauzaten hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak, bai eta luzapenaren edo luzapenen iraupena ere, baldin eta aurreikusita badaude.
- Prestazioak jasotzeko, entregatzeko edo onartzeko baldintzak.
- Ordaintzeko baldintzak.
- Kontratua zein kasutan suntsiaraziko den.
- Hala egokituz gero, kontratistari ezartzen zaion isilekotasun betebeharrak zer hartzen duen eta zenbat denborarako den.

Eskaintzarako betekizun eta baldintzen agiria edo Baldintzen Plegua eta hautatutako enpresa hornitzailearen eskaintza kontratuaren zati izango dira. Pleguan edo betekizun eta baldintzen agirian jasota ez dagoen alderdientzako eskubide nahiz betebeharrak ezartzen dituen hizpakerarik ezin du izan kontratu-agiriak. Hala egokituz gero, enpresa esleipendunaren eskaintza zein den zehaztuko dira.

Aurreko bi ataletan xedatutakoa gorabehera, 50.000 eurotik beherako kontratuen kasuan, obra-kontratuak badira, edo 18.000 euro, zerbitzu-, hornidura-kontratuak eta bestelakoak badira, dagokion kontratua egin daiteke edo, besterik ezean, nahikoa izango da aurrekontua onartzea.

Oro har, kontratua, gehienez, hamabost egun baliodunetan formalizatuko da, lizitatzailleek egindako esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.



VII. AZKEN GOGOETAK

Lehena.- Indarrean sartzea

Kontratazeko Barne Jarraibide hauek onartzen diren egunean bertan sartuko dira indarrean, eta data horretatik aurrera hasitako kontratazio-espedienteei aplikatuko zaizkie.

Bigarrena.- Argitaratzea

Jarraibide hauek fundazioaren kontratugilearen profilean argitaratuko dira, honako helbide honetan: www.basqueteam.eus